

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

eredugarri	—Ezin da esan aitona eredugarria denik, e! —esan zion amak alabari.
liluratu	Beti liluratu nauzu zure pentsakera heldu horrekin...
aldarte	Amaia aldarte oneko zegoen, baina alabarekin bere haurtzaroaz hitz egiteak urduri jartzen zuen, zeozeren beldur balitz bezala.
balizko	—Beti zabilta zure balizko burutazioekin.
zarra-zarra	Gau hartan zarra-zarra zebilen euria.
paraje	—Ziur nago oso paraje ederra izango dela. Lasaitu zaitez, Leire.
burualde	Inongo haitzen burualderik ez zen inon ageri.
berritsu	...barra atzean ikusi zuen tabernaria, emakume lodia zena eta berritsua zirudiena.
adinean sartua	Bata gaztea eta bestea adinean sartua ziren baina oso atseginak ziruditen.
abegitsua	—Arratsaldeon! —andrearen diosal abegitsua .
zorian	Hasperen egin zuen Leirek, oso entzuna zuen zerbait berriro entzuteko zorian dagoenaren jarrera hartuz.
esamolde	—Eskerrik asko! —andreak ohiko esamoldea erabiliz.
galdegin	...erantzun harekin guztiz harrিতa galdegin zuen Leirek orduan.
arestian	Berriz galdetu zuen amak arestian egindako galderaren erantzuna ez zela iristen ohartuta.
han-hemenka	Inguruan baserriak daude han-hemenka .
hitz jarioan	Ama alabek hitz jarioan ziharduten beraien gelan sartuta.
errekasto	...mendiko ibilgune batean, errekasto bat zegoen, nahikoa ur zeramana.
zangalatraba	Bide kaskar hartan erdi zangalatrabaka ibiltzen hasi ziren.
madarikazioka	Amaia urduri eta madarikazioka zebilen aspaldi.
bortitz	Amaiak bolantea bortitz jo behar izan zuen, gerta zitekeen edozein atsekabe saihesteko.

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

kalapita	Leirek ez zuen inongo kalapitarik nahi, horregatik ez zuen gai hura atera bi ahizpen artean.
mendilepo	... mendilepo baten itxura hartu zioten ama-alabek bide kaskar hari.
bidaide	...autoaren barruko bi bidaideak mendian gero eta geroago eramanez
gotor	Harri sendoek itxura gotorra ematen zioten harresiari. Ez zegoen harresi hori inondik zeharkatzeko aukerarik.
ederrik eta potorrik	Ez nuen uste horren etxe ederrik eta potorrik topatuko genuenik.
porlan	Ibilgailua berehala galdu zen porlanezko pistan aurrera joanda, eta atzetik zihoakion pertsona norabide berean abiatu zen linterna piztua esku batean...
sorbald	Pertsona haren gorpuzkerari erreparatuz gero, gizonetzkoa zela pentsa zitekeen, sorbalden formagatik gehienbat...
desitxuratu	...gizonetzkoa zela pentsa zitekeen (...) zira zabal txanoduna baitzeraman euriaren kontra jantzita, honek gorputzaren irudia sobera desitxuratz en zuela.
eskuargi	Aizpeberri etxe ederraren inguruko harresira gerturatu zenean, eskuargia itzali eta burdinazko atetik urrundu zen ezkeralderantz...
gaztainondo	Behin zuhaitzera igoz gero –azal zimurreko gaztainondo zaharra berau–, erraza izan zitzaion harresiaren gainera jauzi egitea.
besaulki	Gela hartan (...) bi emakume ikusi zituen, sutondo goxoko besaulki banatan aurrez aurre eserita, biak irribarrez eta hizketan.
kaskarin	Oso kaskarina izan da beti, eta horrela bukatu du bukatu duen bezala: ama ezkongabea da, dakizunez, hemezortzi urte zituenetik.
etxeoandre	Izan bazina bertako etxeoandre gizenak berehala jarriko zintuen jakinaren gainean, gure aitak etxea erosi eta zaharberritu egina esanda.
solasaldi	Minutu bat lehenago hurbildu balitz, Ana ahizpa bikiarekin izandako solasaldia aditu zuen gizona ikusiko zukeen etxearen hormen ondotik ihesi.
argigune	Lorategian zakur zaindaririk ez zegoenez, nahikoa zuen argiguneetatik pixka bat urruntzea, inork ez zezan ikus.
xede	Garbi zegoen, bestalde, gizonak Ana zuela xede eta helburu.
tinkotasun	Etxearen hormaren oinetan ura bor-bor zerion hodi hartara joan, eta bi eskuekin heldu zion haren tinkotasuna ziurtatu nahi balu bezala.
hilerr	Hilerriko isiltasuna festa alaia da, Agustinarene hitzen ondoren sortu zen isiltasunaren ondoan.
zizka-mizka	Isil-isilik ari zen afariaren hasierako zizka-mizkak zerbitzatzen: kroketak, otarraintxoak, urdaiazpikoa, zainzuriak eta foie-grasa.
ustekabe	Ziur naiz, zaharrak esan behar diguna edozer izanda ere, zure ustekabea baino handiagoa ez dela izango.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

mamurtu	Ezer esan baino lehen, Agustinak ahoan zeukan entsalada mamurtzen bukatu eta irentsi egin zuen.
miretsi	...hitz egin bitartean, miretsita zegoen, bere lehengo nebaren begiak, ahoa eta eskuak soilik ezagutzen baitzituen oraingo ahizparengan.
erretilu	Une hartan Nati jangelan sartu zen eskuetan metalezko erretilu distiratsu eta estali bat zekarrela.
neskame	Neskamea berehala itzuli zen sukaldetik sardexka garbiarekin eta,(...) haragia zerbitzatzeari ekin zion arin ere arin.
malguki	Erretiluaren estalkia altxatu zuenean, norbaitek oihu egin zuen eta, Garbiñe eta Ana zutik jarri ziren malguki batek bultzatuta bezala...
desenkusa	Denek Anastasioren desenkusak entzun zituzten, baina haiek ez zieten kendu barru-barruan sortu zitzaizkien nazka eta irain-sentimendua.
mespretxu	Areitioaurtena jaunak mespretxuz begiratu zien mahaikide guztiei.
errukitu	Errukitu egin nintzen berataz, horixe da egia, mundu honetan eroapenez jasan nauen bakarra bera izan delako.
alukeria	— Bizitza honetan egin dizkiozun alukeriek barrua jaten zizuten, ezta?
bortxa	Garbiñek ero baten moduan oihu egiteari ekiten zion aldi berean, egoeraren bortxak sorturiko estuasunaren korapiloa askatu nahian edo.
eskari	Etxezainaren lanak egin dizkizuen Anastasio, abokatua da egiatan, eta astelehen goizean hemen izango da nire eskaria bete duzuen zaintzeko.
kitzikaturik	—Txorimalo horrek gauza bat baino gehiago argituko liguke, harrapatuko bagenu! —esan zuen Leirek kitzikaturik .
hilotz	—Lurrean zetzan aitaren hilotza , zapatekin ere ez ukitzen saiatu zen.
destaina	—Azken hitz hau destaina apur batez esan zuen.
intziri	—Utzi negarrak eta intziriak eta hasi fundamentuzko zerbait egiten.
ttipi	—Askoz hobeto nago hemen —esan zuen Garbiñek, irribarre ttipi bat eginez.
berau	—Leioa ireki eta barrura sartzeko esan zion Garbiñeri, horrela ez zedin berau etxera euritan itzuli.
deliberatu	—Halaxe egitea deliberatu zuten eta, ordurako aski berandu zenez.
hargatik	...hil edo biziko konturantz jotzen zuenean —eta ez zer hargatik asko kezkatu...
emeki-emeki	— Emeki-emeki , beheko solairura jaitsi zen neska.

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

erabakior	—Leirek erabakior zuzendu zituen urratsak komunaren ondoko atera.
zentsuratu	—Liburu honen pelikularen izenburua zentsuratu egin dutela berriki.
psikiatriko	—Gehitu behar zaio amak denbora asko egiten zituela ospitale psikiatrikoan .
ereindako	—Urte haietan gu guztiongan loratutako gorrotoa, goseak eta larriagoa dena, maitasun ezak gudan ereindako hazia.
otu	...norbait zegoela atzemanda, ezezaguna izan zitekeela otu zitzaion.
berantiar	—Ez zutelako inor esnatu nahi gaueko ordu berantiar hartan.
txabusina	— Txabusinak nahiz eguneroko arropak jantzita Anaren ahizpa eta Leire azkar ziren lehen solairuan.
makabro	—Aitzitik, irudi benetan makabroa zen begien aurrean azaldu zitzaiena.
sinesgogor egin	...erantzun zion Anak zamar samar, hiltzaile kontu hari sinesgogor eginez.
jaki-toki	—Jaki berriak atera zituzten sukaldeko hozkailu erraldoitik eta jaki-tokitik .
mendean	—Txorikumetxoak hizketan ikusi du eta! Zu ez zinen mendean pozik egoten, ala?
dinamoa	—Argindarra sortzen ari zaigun dinamoa aurkitu behar genuke.
biago	—Pilarrek eta Anak beren logeletara biagoa egitera erretiratzea erabaki zuten.
hasperenez	—Larrua jotzen hasperenez , larrua jotzen atseginez, larrua jotzen plazer batean.
sarkor	—Egongelako guztiek haren dilin-dalan sarkorraren soinua entzuteko.
ergel	—Ez zaitetz ergela izan, Ana —esan zion Pilarrek.
iratzarri	Lo geratu zen zain zegoen bitartean, eta izandako trumoiek ere ez zuten iratzarri ...
erantzi	...ordurako aski berandu zenez, hortzak garbitu, erantzi eta ohera sartzea erabaki zuten...
jaiki	Ama benetan lo zegoela aski ziurtzat jo zuenean, Leire jaiki egin zen argirik piztu gabe.
zurrunga	...argia itzali eta eta hamar minutura, bere ama zurrungaka ari zen.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

oinaztargi	Noizbehinka, gainera, zeruko oinaztargiek ere ikusten laguntzen zuten.
kirrinka	Eskailerak kirrinka egin zuen han edo hemen, baina ez zirudien gauza larria izango zenik.
miresmen	Leirek miresmenez ikusi zuen orriak jadanik horituta zeuzkan liburua.
mozkor	— Aita mozkorra gauza txarra da etxean, Leire. Janari ezak gosea eta inbidia dakartza...
nozitu	...beti egon naiz etxean lagunik gabe, eta aitaren gorrotoa etengabe noitzen , bere ustez maritxua nintzelako, benetan transexuala naizenean.
oroitzapen	— Jo? —galdetu zuen Leirek, bere izebaren oroitzapen txarrak berpizten ari zela jakin arren.
aitzur	— Urteetan! Eta gero, aita beti berandu Kristoren aitzurarekin etxera itzultzen zenean, haren oinetara makurtzen ziren txakurtxo apalen moduan...
etsipen	...beraiek ez zitzaion jo eta gutakoren bat jipoitu zezan ohean, horrela bere amorrua eta etsipenak baretuz.
adore	— Ez dakit nondik atera duen hona bakarrik etortzeko adorea —Agustinak ahapeka.
ahapeka	— Ez dakit nondik atera duen hona bakarrik etortzeko adorea —Agustinak ahapeka .
estalpe	Poliki eta isilik sartu ziren denak sukaldean, ziurraski artzainak Belengo estalpera hurbiltzen ziren bezala, Jesus jaio zen gauean.
errukarri	— Itxaron! —eskatu zuen Agustinak une batez—. Nati errukarria nola hil duten jakin behar dugu.
zoru	Pistola ez zegoen zorian : aitaren eskutik erori ostean geratu zen lekuan haren arrastorik ez zegoen.
mintzatu	Garbiñe dardaraka ari zen, negarrez hasteko zorian. Ana horretaz jabetu zenean, honela mintzatu zitzaion.
atertu	Euri gehiegi egin du denbora gutxian, eta ez dirudi laster atertuko duenik.
trufa	— Ez da erantzun serioa —errepikatu zuen trufaz .
zikoitz	Hemen gauden guztiok dakigu diruzaleena eta zikoitzena zeu zarela.
damu	Etxe hartara joan izanaz damutzen hasi zen berriz, eta Ana bere gogoetatik atera zen neskatoak zioenari arreta ipintzeko.
kuluxka	Oso egokia kuluxka bat egiten saiatzea.
potroak izan	Gainera, milioi pila jasoko zenuke hartara astelehen goizean..., potrorik ez baduzu.

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

mesfidati	...hura gertatu ondoren urduria eta ikaragarri mesfidatia bihurtu zen.
ase-ase eginda	Ase-ase eginda zeuden bazterrak urez...
kikildurik	...txoriak ere bustitzeko beldurrez kikildurik zebiltzanez.
tinko	...agindu zuen Amaiak ahapeka Leire ez esnatzeko, baina tinko .
ostarte	Eguraldiari buruzko saioan, astelehenean ostarteak agertuko zirela esan zuten...
trumilka	Pentsamendu azkarrak buruan trumilka nahasten zitzaizkion.
sarraila	Sarrailan sartu eta jiratu egin zuen.
erregutu	...benetan erregutzen ari zela zirudien arren.
orro	Motoreak egundoko orroa egin zuen...
oihartzun	...bere urratsak oihartzun eta guzti nabarmen entzuten zirela eliz barruko isiltasunean.
lekukotza	Lekukotza historiko polita, haren berri jaso nahi zuenarentzat.
maratila	...bi tiro egin zizkion heldulekua eta maratila apurtzeko asmoz...
urdanga	— Non zaude, urdanga ?
menturaz	Fidakorregia izan zen menturaz ...
kordokaturik	...ahotsa kordokaturik , bere ahizparengana arin-arin joan bitartean.
sakristi	...denbora piska bat galdu behar izan zuten, sakristiara joan...
izter	...eta Amaia txoko batean zegoen negarrez, izterrak odolotan.
koitadu	Garbiñe koitaduak haundun zegoela etxetik joan eta...
herentzia	...eta bide batez herentzia -agiriak hartuko ditugu.
diosal	— Arratsaldeon! —andreamen diosal abegitsua.